

10.1. TXOSTENAREN BALIOA

Prozesuaren bukaera Prozesua amaitzeko idatzizko eta ahozko txostena egiten dira. Ahal den kasuetan biak egitea hobea da.

Helburuen araberako diagnostikoa, deskribapena, orientazioa edo esku-hartzea Helburuaren araberako diagnostikoa. Helburuaren arabera ebaluaketa prozesua gauzatzen da eta txostena idazten da ondoren. Baina ez da hor amaitzen, jarraian esku-hartzea edo tratamendua.

Txostenaren oinarrizko alderdiak:

- **Iraunkorra eta gorde daitekeen testigantza (etorkizuna)** Etorkizunean erabiltzeko zerbait izan daiteke, iraunkorra dena eta gordetzeko testigantza. Txosten guztiak gorde egiten dira. Beste psikologo baterengana goazenean ere, honek aurrez zer gertatu zaigun jakiteko balio digu adibidez.
- **Planteaturiko hipotesien kontrasterako informazio-iturria** Informazio-iturria bilatzea eta gorpuztea, ondoren hipotesiak kontrastatu. Hau da, hipotesiak egin, ondoren datuak hasi eta txostenean gorpuztu.
- **Emaitzak komunikatzeko beharrezkoa** Ebaluaketa gauzatu da eta gure beharra da zer egin dugun eta ondorioak zeintzuk diren azaltzea. Hau da, ebaluatuari esatea zer ikusi dugun. Batez ere, bera bada gure zerbitzua eskatu duena.
- **Dokumentu legala (peritajeak)** Peritajea egitea eskatu badigute, froga gisa balio du. Nahasterik duen edo ez esateko. Peritajea denean epaiketetan erabiltzen da. Kasu hauetan, txostenak izaera legala du.

10.2. TXOSTENAREN EZAUGARRIAK

1. Dokumentu zientifikoa Oso ondo zehaztu behar da guztia eta arau batzuk jarraitu behar dira. Errepikagarritasuna izan behar du. Ezin da zerbait diagnostikatu proba bakarra aplikatu bada.

– **Prozesuaren emaitzak, arauak, aditua**

– **Ikerketa zientifikoko txostenaren antzera (errepikagarria eta kontrastagarria):** Beste autore batek hau egingo balu ondorio edo emaitza berdinetara heldu behar du. Hau da, errepikagarria izan behar du.

Autorea

Ebaluaziorako helburuak

Ebaluatu(ar)en identifikazio-datuak

Informazioa jasotzeko erabilitako teknikak

Prozesua

Lortutako emaitzak

Ondorioak eta gomendioak

2. Komunikaziorako tresna Hau egiten dugu itzulera bat emateko ebaluatuari.

– **Ulegarria (nori zuzendua? Bezeroa):** ulregarria izan behar du, berak ulertutako hitzekin eta hitz teknikoekin ere. Medikuek egiten duten bezala.

Hizkuntza maila, luzaera, edukia... egokitu beharra Ez dugu oso luzea egingo, laburrak izaten dira.

Datu teknikoak + idazkera arrunta eta argia

3. Erabilgarria

– **Onartua eta erabilgarria:**

Gomendio zehatzak (oso zehatza bada agian ez du onartzen) **vs. gomendio abstraktuak** (ez da erabilgarria). Bi hauen arteko oreka lortu behar da. Abstraktuak baino zehatzagoan izan behar dute, baina oso zehatzak badira gerta daiteke pertsonak ez onartzea.

Barnum efektua → Oso jeneralak direnean ondorioak, ez gara asko inplikutzen. Tarotean horrelakoak izaten dira baieztapen batzuk edozeinentzat balio dutenak. Ez da benetan kasua atertzera joan. Ez da baliagarria.

10.3. TXOSTEN MOTAK

1. Teorian oinarritua Oso hizkera psikoanalitiko eta teknikoak badu eta ez badu ulertzen, komunikazioa galdu dezake. Arriskua teorian geratzeko.

– **Ebaluazioko ereduak**

Hartzaileak marko teorikoa ezagutzeko beharra

Erabilgarritasuna

2. Tekniketan oinarritua Teorizazioan gehiegi zentratu gabe. Teknikak eta testak oso ondo deskribatzen dira. Ardatza teknikak dira eta ondorioz ez da gehiegi hornitzen marko teorikoarekin.

– **Erabilitako test eta tekniken datuetatik eratorria:** Teoria bati gehiegi atxikitu gabe, kontrol gutxio

Emaitzak ez dira antolatzen edo sintetizatzen;

idazteko erreza eta ulertzeko zailak; Idazteko errazak dira, datu objektiboak, emaitzak, teknikak eta aholku gutxi batzuk ematen dira. Hau da, datu zehatzak hartu eta interpretatu. Baina hauek ulertzea zaila izan daiteke, teknikoegiak direlako datuak eta zenbakiz azaltzen dira.

esperientziarik gabeko ebaluatzaileak. Hau hasiera batean egiten den txostena da, hasiberriek egiten dituzte.

3. Arazoan oinarritua Mugarriak

– **Arazoak zehatzu eta hauen arabera esku-hartu eta jarraipena** Aukera ematen du gero esku-hartzeko. Zailtasun edo oinarriak dira oinarri.

Arazoen homogenizatzeko zaila (desabantaila nagusia, batek DSM-a besteak beste batzuk.. Erreferenteak oso ezberdinak izan daitezke. Zaila da arazoaren homogenizazioa beste psikologo batek ebaluatzen edo esku-hartzen badu); **soilik alderdi negatiboak** (beste desabantaila, arazoak bakarrik hartzen direla, esku-hartzearen alderdi positiboa ere interesatzen zaizkigu, horietatik tiratzeko.); **tratamendura gidatzen duten arazoaren zehaztapena**

Abantaila da norberak egiten badu prozesu osoa, ebaluatzen duenak esku-hartzen badu.

2.motakoa erabiltzen da batez ere, tekniken.

10.4. TXOSTENAREN EGITURA

Ebaluatua eta ebaluatzailearen datu pertsonalak

Izena, sexuak, egoera zibila, ikasketa maila, lanbidea, ebaluazioko datak (testak aplikatu diren datak); **ebaluatzailearen izena eta akreditazioa** (kolegiatu zenbakia). Datuak nik bakarrik erabili behar badituzte izena jarriko dut, bestela inzialak soilik.

Erreferentzia eta helburuak

Ebaluazioaren motiboa eta planteatutako helburuak (bezeroa/bidaltzailea)

Datu biografiko garrantzitsuak

Ingurune baldintza aipagarriak (iraganekoak zein testuinguru hurbilekoak) eta garapenari buruzko informazioa; datu soziodemografiko garrantzitsuak; arazoaren historiari buruzkoak (datu garrantzitsuak idatzi, noiz sortu zen, aldaketarik egon den).

Teknikak eta prozedura

Teknika eta testen zerrenda aipatu (bertsioa (Kasu batzuetan bertsio bat baino gehiago eta zein den ikusi behar da) **eta tipifikaziorako baremoak) eta ebaluazioaren kontrasterako beste edozein prozedura (adb., ebaluatzaileen arteko akordioak** Behaketa bi ebaluatzailek

egin badute adostasunik egon den ikusi behar da. Datu); **datu gordinak ere bai gordinak** dira.

Azterketa unean izandako jokaera

Aipatzea merezi duten kanpo jokabide motoreak zein berbalak; jokabideetan eragiten duten ebaluatzailearen jokabideak

Emitzen integrazioa

Ebaluatzailearen marko teorikoa (ebaluazioko eredua): ikerketaobjektua deneko jokabideak; nortasuneko ezaugarriak; baldintza sozio-ambientalak; baldintza biologikoak (hala badagozkio) (Orain arte datu gordinak bakarrik eman ditugu).

Orientazioa edota esku-hartze helburuak

Helburuen arabera: balizko lanbide egokiak (motibazioa); lanpostu baterako onarpena ala ez; kasu klinikoan diagnostikoa. lanpostu baterako onarpena ala ez; kasu klinikoan diagnostikoa. Gomendioak edo esku-hartzeak zerrendatu eta lehentasunak Hasierako eskaerari erantzun.

Esku-hartzeen balorazioa (hala badagokio)

Ebaluatzaileak tratamendua egin badu. Ebaluatzaileak jarritako helburuen arabera (aldaketarik?), eta bezeroaren ebaluazioa.